

**AKORDIOA, III. SAILKAPEN TALDEKO (Kategoria profesionala: Teknikari espezialista Mekanika, Espezialitatea: Mekanika) LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK HAUTATZEKO PROZESUAREN EPAIMAHAIARENA. DEIALDI HORI 2018ko AZAROAREN 2ko ERREKTOREAREN ERABAKIAREN BIDEZ EGIN ZEN.**

---

Epaimahai honek hainbat idatzi jaso ditu, argitaratutako galdera zerrendetako hainbat galderaren inguruko akatsen, zalantzen eta desadostasunen berri ematen dutenak.

Era berean, azterketaren nondik norakoei buruzko galderak jaso ditu.

Horiek aztertu ondoren, eta Deialdiaren Oinarri Orokorren zortzigarren eta hamabigarren puntuan eta Oinarri Espezifikoen hirugarren puntuan (biak ere UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan jasotakoak) aurreikusitakoa kontuan hartuta, III. sailkapen taldeko (Kategoria profesionala: Teknikari espezialista Mekanika, Espezialitatea: Mekanika) lan kontratudun langile finkoak hartzeko hautapen prozesuaren epaimahaiak honako hau erabaki du:

**LEHENA.-** Galderen zerrendan hautemandako akats formalak (hala nola gramatika, tipografia, osaketa, numerazioa, letra formatua, azpiindizeak) baita anbiguoak bezala hartutako galdera batzuk ere zuzentzea, eranskinaren arabera.

**BIGARRENA.-** Jakitera ematea hautagai bakoitzak azterketa egiteko unean aukeratu ahal izango duela bai azterketa egiteko hizkuntza, bai egin beharreko ariketa praktikoa mota.

**HIRUGARRENA.-** Oinarri espezifikoen 3.1.2 puntuan adierazitako ariketa praktikoa egiteari begira, epaimahaiak gutxienez proposatutako dituen 5 kasu praktikotako bat ebaztea hautatzen duten pertsonak honako material eta dokumentazio hau erabili ahal izango dute: bakarrik kalkulagailua eta marrazketarako elementu sinpleak: arkatza, borragoma, eskuaira, kartaboia, erregela eta konpasa.

Leioa, 2019ko urriaren 8a

Epaimahaiko idazkaria

Jorge Ezkurdia González

## I. ERANSKINA

Mekanika teknikari espezialista OPE-LEP 2016/17 hautaketa-prozesuko galderen zerrendei buruzko oharrak kontutan izanda, hurrengo galderen enuntziatuak hobetu dira:

**15. Prozesu hauetako zein erabiltzen da metal gogorrezko trefilagailu bat egiteko?**

- a) Hari bidezko elektrohigadura.
- b) Ultrasoinu bidezko mekanizatua.
- c) Mekanizatu elektrokimikoa.
- d) Ur-zorrotada bidezko mekanizatua.

**75. Zer motorrek eskatzen du 15w40 olioia?**

- a) Diesel motorrak.
- b) Turborreaktore motorrak.
- c) Motor birakariak.
- d) Motor elektrikoa.

**84. Joan-etorriko makina-erreminta handiena da. Profilatzeko makinetan ez bezala (haitan pieza finko baten gainean mugitzen baita erreminta), erreminta finko dago eta makinak haren gainean mugitzen du pieza.**

- a) Arrabotatzeko makina.
- b) Tornua.
- c) Zerra.
- d) Mortasatzeko makina.

**224. Karraka-giltzak badu beste izen bat ere, zein?**

- a) Carlton.
- b) Matraka.
- c) Automatikoa.
- d) Baraila.

**253. Zer sekzio-angelu du sekzio trapezoidaleko ISO 4184 uhal batek?**

- a) 50°
- b) 30°
- c) 40°
- d) 90°

**311. Errasketatzearen helburu nagusia hau da:**

- a) Eztanda-motorretan zilindro-atorrak doitzea.
- b) Zuntzezko eta karbonozko konpositeak fabrikatzea.
- c) Euskarrien ertzak arraspatzea.
- d) Makina-erremintetan lerratze-gidariak doitzea.

**372. Zenbatean behin egin behar dira ISO 9001 arauaren ikuskaritzak?**

- a) Hilean behin.
- b) Hiru hilean behin.
- c) Sei hilean behin.
- d) Urtero.

**373. Zein dira ISO 9001 arauak eskatzen dituen prozedura dokumentatuak?**

- a) Erregistroen kontrola.
- b) Adostasunik ez duten produktuen kontrola.
- c) Barne-ikuskapenak.
- d) Aurreko guztiak

**426. Istripuren bat gertatuta ere, segurtasunari begira lantegiko begi-garbitzekoaren temperatura...**

- a) 125/98 EDaren definizio-taulen arabera kalkulatu behar da.
- b) Tenperaturak 20 eta 35 °C bitartekoa izan behar du, erreta edo shock-egoeran dagoen pertsona bat hozteak dakartzan arriskuak saihesteko.
- c) Tenperaturak 18 eta 20 °C bitartekoa izan behar du, erreta edo shock-egoeran dagoen pertsona bat hozteak dakartzan arriskuak saihesteko.
- d) Tenperaturak 35 eta 45 °C bitartekoa izan behar du, paroxismo-egoeran dagoen pertsona baten erantzuna aktibatzeak dakartzan arriskuak saihesteko.

**440. L/D erlazioa 80 duen 10 mm diametroko zulo bat egin nahi badugu, aukerarik egokiena hau erabiltzea da:**

- a) Otxabu bat.
- b) Osoko barauts helikoidal bat.
- c) Kanoi-barauts bat.
- d) Plakatxo-barauts helikoidal bat.